## UDALBATZARRA/ PLENO MUNICIPAL Nº 13/13

LASARTE-ORIAKO UDALBATZARRAK **2013KO URRIAREN 4an** EGINDAKO **EZ OHIKO BATZARRALDIAREN** AKTA.

ACTA DE LA **SESIÓN EXTRAORDINARIA** CELEBRADA POR EL PLENO MUNICIPAL DEL AYUNTAMIENTO DE LASARTE-ORIA EL DÍA 4 DE OCTUBRE **DE 2013.**

**ETORRITAKOAK:** **ASISTENTES:**

| | | |
|---|---|---|
| ALKATE LEHENDAKARIA:<br>ALCALDE-PRESIDENTE | Pablo Barrio Ramírez jn. | (BILDU) |
| ALKATEORDEAK:<br>TENIENTES DE ALCALDE | Nerea Sánchez López and. | (BILDU) |
| | Gorka Lizarraga Erro jn. | (BILDU) |
| | Alaitz Mendizabal Urdapilleta and. | (BILDU) |
| | Tasio Arrizabalaga Azpiroz jn. | (BILDU) |
| ZINEGOTZIAK: | Estitxu Alkorta Barragán and. | (EAJ-PNV) |
| | Boris Nogales Benito jn. | (EAJ-PNV) |
| | Ana Isabel Prieto Narciso and. | (LOHP-PCLO) |
| | Juan José Castro Domínguez jn. | (LOHP-PCLO) |
| | Marisa Zubiri Bustillo and. | (Concejal No adscrito) |
| IDAZKARIA:<br>SECRETARIO | Francisco Xabier A. Egea Jauregi jn. | |

**EZ ETORRITAKOAK:** **NO ASISTENTES:**

| | | |
|---|---|---|
| ZINEGOTZIAK:<br>CONCEJALES | Jesús Mª Zaballos de Llanos jn. | (PSE-EE-PSOE) |
| | Iñaki Múgica Flores jn. | (PSE-EE-PSOE) |
| | Txus Alonso Ocáriz jn. | (PSE-EE-PSOE) |
| | Lourdes Acevedo Beldarrain and. | (PSE-EE-PSOE) |
| | Martín Moreno García jn. | (PSE-EE-PSOE) |
| | Nerea Artamendi Erro and. | (PSE-EE-PSOE) |
| | Vanessa Vélez de Pablos and. | (PP) |
| KONTUHARTZAILEA:<br>INTERVENTOR | Ion Murua Guinea jn. | |

Lasarte-Oriako udaletxeko batzar-aretoan, 2013ko urriaren 4ko 18 :30 zirelarik, aldez aurretik horretarako deialdia eginda, Lasarte-Oriako udalbatzar osoa bildu zen, Pablo Barrio Ramírez alkate jaunaren lehendakaritzapean, gorago aipatzen diren alkateordeak eta zinegotziak bertan zirela, eta nik urgatzita, Francisco Xabier A. Egea Jauregi idazkari jaunak, geroago esango diren erabakiak hartzeko.

Udalbatzarra eratzeko "quorum" nahikoa badagoenez gero, alkate jaunak eratua deklaratzen du udalbatzarra, eta, haren aginduz, bilkurako gai-zerrendan sartutako gaiak tratatzeari ekiten zaio.

En la Sala de Plenos del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, siendo las 18:30 horas del día 4 de octubre de 2013, previa citación al efecto, se reunió el Pleno Municipal del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde D. Pablo Barrio Ramírez, con la asistencia de los Tenientes de Alcalde y Concejales que arriba se relacionan, y asistidos de mí, el Secretario D. Francisco Xabier A. Egea Jauregi, para tomar los acuerdos que luego se dirán.

Existiendo "quórum" suficiente para la constitución del Pleno, el Sr. Alcalde declara constituido el Pleno y de su orden se pasa a tratar sobre los asuntos incluidos en el Orden del Día.

**1. URGENTZIAREN ONARPENA.**

**1. APROBACIÓN DE LA URGENCIA.**

Alkateak hitza hartzen du, urgentziaren onarpenari dagokionez esateko bi kasu gerta daitezkeela, lehenengoa aurreko Udalbatzarrean emandako egoera, hau da mozioa gai ordenan aurkitzen ez denean onartua izateko gehiengo absolutua behar izana, eta bigarrena gaurko kasua, gai zerrendan agertzen denez onartua izateko gehiengo sinplea beharrezkoa da. Jarraian gogorarazten du Udalbatzarra irauten duen bitartean publikoak ezin duela parte hartu, baina bukaeran eta beti bezala baten batek hitz egin nahi badu aukera emango zaiola.

Toma la palabra el Sr. Castro para decir que no le parece que sea un tema urgente. Que lo entendería así si se hubiera convocado una Junta de Portavoces el martes y se hubiera puesto un Pleno el miércoles, pero a estas altura y habiendo un Pleno el próximo martes, se podría esperar. Dice que aún así el voto de su partido será la abstención, ya que nunca se opondrán a que se trate una moción en un Pleno.

Alkorta andreak hitza hartzen du esateko Castro jaunarekin ados daudela; urgentzia erlatiboa ikusten dutela, egunean bertan konbokatua izan balitz ulertuko luketela, eta orain datorren astearterarte itxaron zitekeela. Hau guztia kontuan hartuta abstentzioa bozkatuko dutela dio.

Alkate jaunak hitza hartzen du esateko urgentziaz ari direnean ez direla ari adibidez plegu batzuen urgentziaz edo obra batzuk egiteko lizentziaren urgentziaz, baizik eta gure herrian

oinarrizko askatasun demokratikoak oraindik ez direla errespetatzen; mota horretako urgentziaz ari direla, eta ez hori bakarrik gisa-eskubideen aldarrikapena ere kriminalizatzen dela eta hori bai kuantitatiboki beste motako urgentzia bat dela beraien ustez; are gehiago konponbide prozesu bat aurrera eramateko guztion ekarpenak behar direla eta hain zuzen PP-ek eta orohar Estatuak astelehenean hartutako erabakiarekin iraganeko errezetekin erasotu zuela egoera berria, konponbidearen aukerari kalte izugarria eginez. Esaten du mota honetako urgentziak ari direla, atxilotuak kalean egotearen konponbide prozesuari egiten zaion erasoa da unearen larritasuna eta urgentzia markatzen duena, horregatik beraien botoa urgentziaren aldekoa izango dela.

Bozkatzera jarrita jorratu behar den gaiaren urgentzia, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak, aldeko bost botorekin (5 BILDU) eta bost abstentziorekin (2 EAJ-PNV, 2 PCLO, 1 Zubiri andrea), **ONARTU** egiten du urgentzia hura.

Sometido a votación la urgencia del tema a tratar, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, con cinco votos a favor (5 BILDU) y cinco abstenciones (2 EAJ-PNV, 2 PCLO, 1 Sra. Zubiri) **APRUEBA** dicha urgencia.

**2.- BILDU-k AURKEZTUTAKO MOZIOA, HERRIRA MUGIMENDUAREN KIDEEN ATXILOKETARI BURUZKOA.**

**2.- MOCIÓN PRESENTADA POR BILDU EN RELACIÓN A LA DETENCIÓN DE MIEMBROS DE HERRIRA.**

Alkate jaunak hitza hartzen du esateko hasiera batean BILDU-k mozio bat aurkeztu zuela gai honen inguruan; gero EAJ-PNV-k beste bat aurkeztu zuela eta ondorioz bion artean adostutako testu bat aurkeztu dutela. Hau honela, bai Bilduk bai EAJ-k aurkeztutako mozioak bertan behera gelditzen direla, eta adostutako mozioa irakurtzen du jarraian transkribatzen dena.

**MOZIOA**

"Euskal Herrian aldaketa politiko sakonak bizi izan ditugu azken urteetan. Aldaketa politiko sakona izan de ETA erakundeak erabaki eta adierazi izana 2011ko urriaren 20an bere jarduera armatuaren behin betiko amaiera.

**MOCIÓN**

"En los últimos años, en Euskal Herria, hemos vivido profundos cambios políticos. La decisión y el anuncio del cese definitivo de la actividad armada de ETA, el 20 de octubre de 2011, ha supuesto un profundo cambio político.

Herri hau, giza eskubide guztien onarpenean eta defentsan oinarrituz, demokrazia eta bakea garatuz eta herritarren borondatea oinarritzat hartuz eraiki behar dela, herri honen gehiengoak aspaldi egindako hautua da.

Aste honetan, “Herrira” plataformako kideak atxilotu dituzte. “Dena ETA da” tesiari eutsiz egin dituzte atxiloketak, Euskal Herrian bake prozesua bultzatu eta finkatzeko bidean atzeraldia suposatzen dutelarik.

Euskal Herriko erakundeek eta gizartearen gehiengo nabarmenak euskal presoak jasaten ari diren oinarrizko eskubideen urraketak behin eta berriz salatu dituzte, legeak, zuzenbide internazionalak eta giza eskubideen deklarazioak presoei aitortzen dizkien eskubideak defendatzea zilegi dela adieraziz.

Oinarrizko eskubideen etengabeko zapalketak ez dira inolaz ere lagungarri gure Herriak behar duen soluzio bilaketarako.

Erakunde politikoen ilegalizazio prozesuek eten egiten dituzte oinarrizko eskubide diren ideologia, adierazpen, elkartze eta parte-hartze aldarrikapen demokratikoak; euskal gizartearen aniztasun politikoari zor zaion errespetuari eragiten diote zuzen zuzenean, eta baita gure herriko elkarbizitzari ere; eta guztiz urruntzen gaituzte euskal gizarteak behin eta berriz eskatzen duen normalizazio politiko eszenatokietatik.

Horregatik ondorengo puntuak aurkezten ditugu Udalbatzarrak onartu ditzan:

Este Pueblo se tiene que construir desde el respeto y la defensa de todos los derechos, a través de la consolidación de la paz y la democracia, y en base a la voluntad de sus ciudadanos y ciudadanas. Eso es lo que la mayoría de este Pueblo eligió hace ya tiempo.

Esta semana, han sido detenidos miembros de la plataforma “Herrira”. Las detenciones -que se han realizado conforme a la tesis de que “todo es ETA”- suponen un retroceso en el camino del impulso y la consolidación del proceso de la paz en Euskal Herria.

Las instituciones vascas y un mayoría significativa de la sociedad vasca han denunciado, una y otra vez, la vulneración de derechos básicos que están sufriendo los presos vascos; han reivindicado que es legítimo defender los derechos que la Ley, el derecho internacional y la declaración de derechos humanos les reconocen a los presos.

La vulneración indefinida de derechos básicos no contribuye, en modo alguno, a la búsqueda de la solución que necesita nuestro Pueblo.

Los procesos de ilegalización de organizaciones políticas lesionan derechos fundamentales como son las libertades de ideología, expresión, reunión y participación y afecta directamente al respeto que se merece la pluralidad de la sociedad vasca, y también a la convivencia en nuestro pueblo; y nos aleja considerablemente del escenario de normalización política que, una y otra vez, reclama la sociedad vasca.

Por todo ello, presentamos el Pleno para su debate y aprobación los siguientes puntos:

1.- Denuncian la estrategia político-judicial del Gobierno español, que, basándose

1.- Espaniar Gobernuaren estrategia politiko-judiziala salatzen dute, salbuespenezko legediak oinarri hartuta, zenbait erakunde judizial, Auzitegi Nazionala kasu, erabiltzen dituelako “dena ETA da” tesia aktibatzeko, ETAk duela ia bi urte ekintza armatuaren behin betiko etena aldarrikatu zuela jakitun izan arren, eta ETAren ekintzak irauten duen ideia berreskuratu nahian dabilelako, aipatu erakunde horren erabakiaren irrebertsibilitatea eta egiazkotasuna egiaztatzeko ardura politikoa bere gain hartu beharrean, eta bake prozesua bultzatu beharrean.

2.- Euskal herritarron eskubide zibil eta politikoen errespetua eta “Herrira”ren baitan euskal presoen oinarrizko eskubideen alde lanean ari ziren atxilotutako pertsona guztien askatasuna eskatzen dute.

en leyes de excepcionalidad, utiliza determinadas instancias judiciales como la Audiencia Nacional para activar la tesis del “todo es ETA” a sabiendas de que ETA anunció hace casi dos años el cese definitivo de su actividad armada y porque, en vez de asumir la responsabilidad política de verificar la irreversibilidad y la veracidad de la decisión de ETA, en vez de impulsar el proceso de paz, trata de recuperar la idea de que la actividad de dicha organización perdura.

2.- Reclaman respeto a todos los derechos civiles y políticos de toda la ciudadanía y solicitan la puesta en libertad de todas las personas detenidas que en el seno de Herrira estaban trabajando por los derechos fundamentales de los y las presas vascas.

Bozkatzera jarrita Lasarte-Oriako Udalbatzarrak, aldeko zazpi botorekin (5 BILDU, 2 EAJ-PNV) eta hiru abstentziorekin (2 PCLO, 1 Zubiri andrea) **ONARTU** egiten du mozio hura.

Sometida a votación, el Pleno de la Corporación del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, con siete votos a favor (5 BILDU, 2 EAJ-PNV) y tres abstenciones (2 PCLO, 1 Sra. Zubiri), **APRUEBA** dicha moción.

Eta, beste aztergairik ez dagoenez gero, goiburuan adierazitako eguneko 18:48 direlarik, lehendakari jaunak amaitutzat eman du batzarraldia, eta haren akta hau jaso da. Nik, idazkariak, akta honen edukiaren fede ematen dut.

Y no habiendo más asuntos que tratar , siendo las 18:48 horas del día indicado en el encabezamiento, el Sr. Presidente da por terminada la sesión, de la que se levanta la presente acta, de cuyo contenido yo, el secretario, doy fe.